

Ipuin liburu poetikoa osatu du Asier Serrano eibartarrak, estilo ugari biltzen dituena. «Abisalia» sentipen unibertsalen gune bilakatu du,

eta «liburu iradokitzailea» osatu du, bere unibertso literarioko ohiko pertsonaiei leku emanaz eta bere betiko obsesioei eutsiz.

«Abisalia» uhartean kokatu ditu bere obsesioak Asier Serranok

Ane ARRUTI | DONOSTIA

«Poema liburua izan nahi ez zuen liburu poetiko bat egin nahi nuen», aitortu zuen atzo Asier Serranok (Eibar, 1975), eta hala etorri da «Abisalia» (Txalaparta). «Erlojugilea» (2009) bukatzerakoan bere buruari promes egin zion trilogia baten bigarrena izango zela hura, oraindik lehenengoa idatzi gabe zegoela eta gero hirugarren bat etorriko zela. Etikaz aritu zen «Erlojugilea»-n, eta beste bietakarako boterea eta gerra zituen buruan. Baina kontatzeko beste modu baten bilaketa horretan, bi poema liburu etorri ziren: «Hiri gorritik» (2010) eta «Desterratuaren piztarioa» (2011).

«Hor konturatu nintzen, ez nire estilorik gustukoena poesia dela, baina bai poesia berri baten bila hasi behar nintzela, eta hala hasi nintzen 'Abisalia' sortzen», esan zuen. Poema motz batzuekin hasi zen, krisi pertsonal bati aurre egin asmoz ipuinxtoak etorri ziren gero, solteak, itxuraz loturarik ez zeukatenak. Eta orduan hasi zen hari bila, ikusten zuelako guztiak bazutela atmosfera bat, «neure unibertso literario horretan lekua ba-zeukatela».

Abisalia lurralde bat da, uhar-te bat, giza garun itxurako irla bat, bere gune eta ertzekin, ozeano debekatuan kokatua dagoena. «Erlojugilea»-n azaltzen den estatua da Abisalia. «Eibar geografikoki zulo batean kokatuta


dago eta nire obsesioa txikitatik izan da handik ateratzea, Eibar inguratzen duten mendi horiek garaitzea eta beste plano batean jartzea Eibar, punturik abisalenak mendirik altuenak izatea. Abisaliak badauka Eibartik asko, estetikoki behintzat».

Liburu iradokitzailea dela dio Serranok, konplexurik gabe idatzitakoa, bizipen pertsonaletatik abiatuta, eta, bertan ageri direnek urruneko pertsonaiak diruditen arren, sentipen unibertsalen gune izan nahi duena. «Barrura begiratzeko era bat da, gure barne-amildegietara; hor dago kokatuta nire Hiri Gorria. Konturatu naiz liburu honetan inoiz baino presenteago azaltzen dela, baina borborka dagoen bihotz forman».

Berriak eta betikoak

Pertsonaien artean ageri dira oftalmologo bat, bere obsesioa bere emazte itsuarekiko maitasuna dena; historia maisu bat, botere behar batez Abisaliako lur horren historia kontatu beharra duena; aria abeslari bat, haren obsesioa erbeste aukeratu bat dena... Eta errepikatzen dira Serranoren unibertso literarioko beste hainbat ere: erlojugile begibakarra, gobernadorea eta Lorelei —«behar hori neukan, behar nuen pertsonaia indartsu bat izaeraz, eta esango nuke liburu honetako pertsonaiarik ausartena Lorelei bera dela»—.

Ipuin liburu bezala definitu zuten «Abisalia», baina bere bai-



Asier Serrano idazle eta musikaria, atzo Donostian.

Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

tan hartzen ditu elkarrikketa, mikroipuina, poesia eta baita gidioia ere, film labur baterako egindakoa. «Bizitzan oso desordenatua naiz, saiatu naiz kaos hori ordenatzen, haria bilatzen», esan zuen Serranok.

«Hamabi kapitulu daude bisitariari eskainitakoak eta bi arrotzari eskainitakoak», eta garrantzia handia eman diote bai berak eta bai Mikel Soto editoreak horri, ipuinen ordenari, nondik hasi eta non buka, hori izan da gehien kostatu

zaiena. Horregatik luzatu zuten gomendioa liburua hasieratik bukaerara irakurtzeko, «nahiz azken ipuina izan dai-tekeen lehenena».

Obsesioek mugitzen dute Serrano eta haiekin jarraituko duela aurreratu zuen atzo. «Ari naiz musikara gerturatzen», esan zuen. Bere betiko musikariek eta Antxon Sarasuarekin ari da lanean, eta hurrengo lana «Abisalia»-ko mundu literarioari soinu banda jartzea izango dela kontatu zuen.